

Orduan, Quimeraren gainean txanoa ñantzita zuen pertsona bat agertu zen; Quimera lehoiaren, ahuntzaren eta dragoiaren arteko nahastea da.

Edaria emateko esan zidan eta nik, noski, ezetz; lehenengo, nire kontra borrokatu beharko zuela esan nion. Ezpata eta ezkutua atera nituenean harritu zen eta bereak atera zituen. Borrokan hasi ginen.

la-ia eman zidan baina, niri eman ordeztu Poteari eman zion eta apurtu egin zen. Orain ezin zidan niri kendu!.

Borrokan txanoa kendu zuen eta ni begiratzeari, zur eta lur geratu nintzen: nire aita zen. Ezin nintzen mugitu. Galdetu nion, ea bera zen baina berak ez zidan erantzun. Berak ez zekien bere semea nintzela, ni txikia nintzelako Joan zenean baina nik oso ondo gogoratzen nuen bera.

Azkenean, bere semea nintzela ohartarazi nion eta berak etxera itzultzeko lepokoa behar zuela eta berriketari uzteko esan zidan; ez zuen itzultzeko beste modurik eta horregatik zeramatzan urte asko osagaiak bilatzen.

Azkar topatu behar genuen, bestela pozioaren eragina pasatuko zen. Lepokoa dragoien erreinuan zegoen, kristal handi baten barruan, baina ezpataren kolpe batez eta pozioaren energiaz lortu genuen hura ateratzea. Nik ñantzi nuen lepokoa eta nire aitari bostekoa eman nion.

Etxera itzuli ginen. Ama harrituta geratu zen, korrika etorri zen guregana eta besarkada handi bana eman zigun.

Lortu nuen: familia osoa pozik zegoen orain lepokoari esker. Eta gainera, lagun handi bat nuen: PEGASO.

Amaiera

.....
“Pan eta dragoiaren lepokoa”

Nahia Justicia

Nagore Puertas

11 urte - Derio

2011 - C kategoria

2. saria

.....